

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MAÑUETAKO UDALA

2020ko zerga erroldak onestea

Udalbatzak, 2020ko martxoaren 9ko bilkuran, 2020ko zerga errolda hauek onestea erabaki zuen:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

Etxez etxeko zabor bilketa zerbitzuaren tasa

Zerga errolda horiek eta espedientea hamabost egun baliodunez jarriko dira jendaurrean, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, udal idazkaritzan. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuko dira beste erabakirik onartu beharrik gabe, eta haiek kobratzeari ekingo zaio, borondatezko epean. Horretarako, bi hilabete izango dira. Bi hilabete horiek igaro eta ordaindu ez bada, zordunei premiamendu bidean kobratuko zaie, dagozkion errekaru, berandutze interes eta kostekin, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Mañueta, 2020ko martxoaren 9a

Alkatea

FRANCISCO JAVIER GARCIA PEREZ DE LOZA